



## Zurriolako Ataria

73. alea

2019-10-11

### Astronomia atzo DBH1en (gaur adi zeruari!)

Atzokoan Astronomia Tailerra egin zuten DBH1eko taldeetan. Aranzadiko Virginia Garciak unibertsoko osagaien hamaika kontu eta Nazioarteko Espazio Estazioaren bitxikeriak azaldu zituen (Lurrari bira 92 minuturo ematen diola, besteak beste).

**Adi!** Gaur, urriak 11, Nazioarteko Estazio Espaziala Donostiaren gainetik pasako da, 20:32an. Zerura begiratu eta, hodeirik egon ezean, ikusi ahal izango duzue.




### Zurriolako DBH3koak Kmk-en

Aurreko igandean DBH3ko ikasleak Zarautza joan ziren Kilometroak jaian Erronkan parte hartzera. Hainbat frogetan parte hartu zuten gogotsu; hala nola bertsoetan, marmitako prestatzen eta triatloia kasuan lehenak izan ziren helmugara iristen. Hurrengo urtean Villabonan ospatuko dira Kilometroak eredu berri batekin.



### Ategorrieta Berria: Beste pauso bat

Irailko azken Udal Batzarak Villa Sacramento kokatuta dagoen "AU.03 Mitxelene" lurralaren Hirigintza Eremuaren Hiri Antolamendurako Plan Orokorren Xedapen Aldaketari behin betiko onarpena eman zion. Horrenbestez, ikastolak aste honetan bertan aurkeztu du Donostiako Udaletxean Ategorrietako eraikinaren Eraispenezko proiektua eta baita Eraikuntza proiektua ere. ([info +](#))



### Ikasle-laguntzaile programa

Zurriolako bizikidetzaren planaren barruan garatutako *Ikasle-Laguntzaile* programa bete-betean hasiko da datorren astetik aurrera (ikus behiko oharra). Hori dela eta iaz egin genuen bezela guraso-eskola eskainiko da "Gatazken kudeaketa-aren" inguruan urriaren 23an. Formakuntza hau denontzako irekia den arren, bereziki iaz egin ez zuten gurasoei eta LH5ekoei zuzenduta dago. [Hauxe](#) da izena emateko esteka.



### Euskarazko C1 lortzeko diru-laguntzak

Dakizuen bezala, aurten Batx1eko ikasleek aukera izango dute C1 euskara maila zertifikatzeko ikastolan bertan, euskarako eskolatan. Bertatik jakinarazten diegu Donostian erroldatutako gurasoei dagoeneko eska dezaketela matrikulatzeko diru-laguntza udaletxean.



## OHARRAK / AGENDA:

- **Idazkaritza Soroa:** Akatsak telefonoan. Harremanetarako: [idezkaritza@zurriolaikastola.eus](mailto:idezkaritza@zurriolaikastola.eus)
- **Eusko Jaurlaritzako beka:** HH2tik GKAI2ra. Epea: Urriak 29. [Oroigarria](#).
- **Atzerrian hizkuntzak ikasteko beka:** DBH3tik BATX2ra. Epea: Urriak 25. [Oroigarria](#).
- **HH4-5:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Kontzertu pedagogikoa. Goiz pasa. Urriak 16. Goizeko 9:00etarako etorri ikastolara.
- **LH2:** Okendo Kultur Etxera irteera. Goizez. Urriak 9-10.
- **LH5:** Ikasle-Laguntzaile programa. Goizez. Urriak 14 (A) eta urriak 15 (B+C).
- **LH5:** Zientzia museoa. Egun pasa. Urriak 17.
- **DBH3:** Kirol orientazio saioak. 3A urriak 16, 3B urriak 15 eta 3C urriak 18.
- **DBH4:** Ikasle-Laguntzaile programa. Urriak 16.
- **Helduen Danborrada:** Ohiko Batzar Nagusia. Urriak 24. [Deialdia](#).
- **Aske! Musikala - Jaso Ikastolako Antzerki Musikal Taldea:** [Trailerra](#). [Sarrerak](#).
- **Parketarrak:** Egunik onenak [elkarrekin euskaraz joalsean](#). [Informazioa](#).
- **Ipuin kontalarien V. maratona:** [Informazioa](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Urriak 11-13](#).

